

KOSTUEN EGITURA

Gure proiektua aurrera eramateko prozesuan kostuak ere faktore moduan kontuan izan behar ditugu. Arostolaren arrakasta bermatzeko, beharrezkoa da kostu hoi en egitura zehatz eta orekatua izatea.

KOSTU MOTA	DESKRIBAPENA	KOSTU HILEAN	KOSTUA URTEKO
Aplikazioa (Kostu finkoa)	Garapena (Hasierako inbertsioa)	20.000-50.000€	_____
	Mantentze lanak: aplikazioa eguneratzea eta arozoen konponketa	500€-1.000€	6.000€-12.000€
Langileen gastuak - soldatak (Kostu finkoak)	Garatzaileak (3 pertsona: Malen, Helena eta Ibrahim)	1.200€ x 3= 3.600€	50.400€
	Marketing (1 pertsona: Mirari)	1.200	16.800€
	Administrazioa (1 pertsona: Manes)	1.200	16.800€
Banaketa kostuak (Kostu aldakorak)	Eskari bakoitzeko banaketa zerbitzuak	5-10€ = 1.000€ (estimatur ehun eskari izango ditugula)	12.000€
Alokairuak eta instalazioak (Kostu finkoak)	Alokairua	900€	10.800€
	Ura, internet eta elektrizitatea	200-400€	2.400 - 4.800€
	Lizentziak eta aseguruak	100-300€	1.200-3.600€
	Kontabilitate eta legalizazioa	200-400€	2.400-4.800€
	Materiala eta lehengaiak	Ekoizpen eta salmente arabera	
Publizitate eta marketing (Kostu finkoak)	Sare sozialetan publizitatea eta Google Ads	300-500€	3.600 - 6.000€
KOSTU TOTALA		29.200 - 61.400€	120.000- 138.000€

Eskala-ekonomiek kostuak murriztu eta negozioaren errentagarritasuna hobetzen lagunduko digute. **Hornitzaileek emandako deskontuak** ekoizpena handitzeak material unitarioaren prezioa murriztuko dute, adibidez **lehengaien unitateko prezioa txikiagoa** izango dira handizkako eskaerak egitean, horrek gure ekoizpenaren kostuak nabarmena murriztuz. **Banaketa bolumena handitzea** eskari kopurua igotzen bada, banaketa unitarioaren kostua txikitu daiteke, kostu finkoen amortizazioa handituz.

Hedapen-ekonomien bidez baliabideak optimizatuko ditugu eta negozioaren dibertsifikazioa bultzatu. **Produktu aniztasuna** baliabide teknologiko eta logistiko berberak erabiliz, produktu eta zerbitzu eskaintza handituko dugu. **Erosleentzat** produktu eskaintza bereziak eta sustapenak eskainiko ditugu. Berriz, **enpresa txikientzat** plataforma publizitatean edo haien produktuak agerian jartzeko aukera eskainiko diegu.

Teknologia partekatzea garatutako aplikazioaren prozesuak beste sektore edo zerbitzueterako aprobeztatu ahalko ditugu. Hasieran, inbertsio handiena behar duen arloa **aplikazioaren garapena** da. Honako hauek izango dira inbertsio handienak:

- **Aplikazioaren garapena:** 20.000 - 50.000 €
- **Langileen kontratazioa (3 hilabete):** $3 \times 5.500 - 7.500 \text{ €/hilabete} = 16.500 - 22.500\text{€}$
- **Marketing eta publizitate estrategiak:** 2.000 - 5.000 €

TOTALEKO HASIERAKO INBERTSIOA: 40.000 - 77.500 €

Kostu Totala eta Errentagarritasuna aztertzea oso garrantzitsua da.

- **Kostu Finkoak (urteko): 49.200 €** (lokalaren alokairua, langileen soldatak, aplikazioaren mantentze-lanak, lizentziak, kontabilitate eta legalizazioa)
- **Kostu Aldagarriak (urteko): 13.200 €** (materiala, banaketa, elektrizitatea, eta marketing)
- **Hasierako inbertsioak:** 40.000 - 77.500 €
- **Kostu Totala Urteko:** 60.500-800.00€ (hasierako inbertsioa kanpo utzita)

Hasierako inbertsioak altuak izan daitezke, baina eskala-ekonomiak eta hedapen-ekonomiari esker, kostu aldagarriak optimizatuz eta diru-sarrerak maximizatuz, **errentagarritasuna** eta **jasangarritasuna** lortu ditzakegu. Plan ekonomiko bat aurkeztea, non errentagarritasun-epeak eta etorkizuneko irabaziak argi eta garbi azalduko diren, ezinbestekoa da inbertsioak erakargarri egiteko.